

<b>PLANIFIKAZIOA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA. IRAKASLEAK</b>
---

**16. TRESNA. IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA-PLANA**

Diagnostikoa egin ondoren, eta hurrengo ikasturtean garatuko ditugun helburuak lehenetsita, horiek gauzatzeko zer prestakuntza-mota beharko dugun zehartu beharko da.

Prestakuntza-beharrak detektatu ondoren, garatu beharreko ekintza-motak zehaztu beharko dira.

**Irakasleen** sentsibilizazioa eta **prestakuntza** eta ikasleekin zerikusia duten ekintzak zonako irakasleei laguntzeko zerbitzuen bidez bideratu daitezke (EAEko Berritzeguneak). Honako hauek eskatu ahal izango dira: irakasleak prestatzeko berrikuntza-proiektuak, Hezkuntza Sailek antolatzen dituzten prestakuntzak (PREST\_GARA programa, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan), zonako edo tokiko mintegietan parte hartzea (udalak) ...

Guraso Elkarteen Federazioak senideentzako zein ikasleentzako ikastaroak eta tailerrak eskaintzea ere ohikoa da.

Gainera, ikasleekin garatu beharreko ekintzak **ikasleekiko Esku-hartze Planean** islatuko dira, eta ikasleek beren fase diagnostikoan emandako iritziak eta iradokizunak hartuko dira kontuan.

Ekintza horiek Tutoretzako Ekintza Planaren bidez edo zenbait irakasgaitan inplementatu ahal izango dira.

Kontuan hartu beharko da, halaber, litekeena dela diagnostikoa egitean zenbait gatazka edo jazarpen- edo **arrisku**-egoera detektatzea ikasleren batengan. Kasu horretan, beharrezkoa izango da horren arabera jardutea, **esku hartzea**, jazarpenak edo arrisku-egoerak eragindako ikasleekin, egoera hori eragiten duten ikasleekin, familiarekin eta, oro har, ikasle-taldearekin lan eginez, sortutako egoera konpontzeko eta etorkizunean berriro gerta ez dadin **prebenitzeko**. Ildo horretan lan egiteko, ikasgelarako materialen atalean zenbait proposamen didaktiko eskaintzen ditugu, **erantzukidetasunari, genero-berdintasunari, emakumeen ikusgarritasunari, jazarpen homofobikoari eta sexu-identitateari eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari buruz**.

16.1. TRESNA. IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA-PLANA

HELBURUAK	EDUKIAK	DENBORA-BANAKETA	ARDURADUNA	EBALUAZIO-ADIERAZLEAK	ERREKURTSOAK (Aurrekontuak, materialak,...)

16. TRESNA. 2. IKASLEEKIN ESKU HARTZEKO PLANA

HELBURUAK	EDUKIAK	GARATZEKO JARDUERAK	DENBORA-BANAKETA	ARDURADUNA	EBALUAZIO-ADIERAZLEAK